

2. EBAZPEN-PROPOSAMENA, 2025eko azaroaren 24koa, Unibertsitate Komunitatea Artatzeko eta Zaintzeko zuzendariarena, 2025-2026ko ikasturtean unibertsitateko eta goi mailako beste ikasketa batzuk egiteko beka-deialdiari buruzkoa.

2025ko uztailaren 1eko aginduaren bidez (2025ko uztailaren 18ko EHAA), Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuak beka-deialdi bat egin zuen, 2025-2026ko ikasturtean unibertsitateko eta unibertsitatekoak ez diren beste goi ikasketa batzuk egiteko.

2025ko uztailaren 1eko aginduak 37. artikuluan xedatutakoaren arabera, eratu diren hautespen-epaimahaiek banaka aztertu dituzte eranskinean adierazitako eskaerak eta aipatutako eskaerei buruzko ebazpen-proposamena egin da.

Horregatik, aipatutako aginduan ezarritako prozeduraren gainontzeko arauak bete direnez,

PROPOSATZEN DUT

1.- Deialdi hori ebazteko 2. proposamenaren berri ematea 2025-2026ko ikasturtean unibertsitateko eta beste goi ikasketa batzuk egiteko deialdian parte hartzen duten eskatzaileei. Eranskinean, laguntzak emateko edo ukatzeko proposamena duten eskabideak zerrendatzen dira. Eskatzaileek beken aplikazioaren bidez eskura ditzakete eskabideari buruzko ebazpen-proposamenaren xehetasunak.

2.- 10 egun balioduneko epe bat irekitzea, ebazpen-proposamena egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitara eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, eranskinean aipatzen diren eskatzaileek beka emateko proposamenaren kontra alegazioak aurkezteko edo proposamena onartzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko azaroaren 24.

Itziar Fernández Villanueva
Unibertsitate Komunitatea Artatzeko eta Zaintzeko zuzendaria